



luma  
zorrozluz

# «kilometroak 80» ikastolen aldapan

Lehen «Kilometroak» ospatu zenetik, egun hau, festa egun haundi bat izandu da; ikastola eta euskararen aldeko egun batetan bihurtu da urteroko Kilometroak 77,78,79,80... Lehen aldiz antolatzen hasi ginenean, ez genuen uste honelako arrakastarik izan zezakeenik. Ikastolak asmatu izan dituen hainbat eginkizun bezalaxe, dirua biltzeko asmoz sortu zen Kilometroak. Ibilaldi zaila eta neketsua egin dute orain arte Euskal Herriko ikastolek. Bainan inork gutxi ez zuen arrakasta du gaureraino; 60.000 neska-mutiko eskolatzen ditu.

Irakaskuntzaren alorrean arrakasta haundia badu ere ikastolak, bere egitekorik nabarmen eta bereziena, Euskadiko irakaskuntza euskaldun bihurtzen saiatzea izan da; euskal Herriko irakaskuntza osorik euskalduntzea.

Politika orokor eta zabal baten laguntzaren premian arkitzen da gure hizkuntza; irakaskuntza, komunikabideak, administrazioa... eta beste sail guz-

tiak landuko dituen politika baten premian alegia.

Ikastolak bakarrik ez dezake eginkizun hori guztia bete, baina bide honetan haundia da ikastolaren garrantzia, berak ipini baitu hori lortzeko oinarririk sendoenetako bat.

Bainan ikastolek gaur egunarte ibili diren eran ezin dezakete jarraitu. Horregaitik azken urte hauetan, babes instituzionalizatu eta bide publikoaren bila dabilta ikastolak. Oraintsu lortu diren diru laguntza ofizialak direla eta ikastolak gratuidaderuntz abiatu dira; eta honen markua instituzio-publikoak bakarrik eskaini dezaiolke.

Gaur egun, Hezkuntza Ministeritzaren eta Eusko Gobernuako Kontseilaritzaren arteko konbenioa onartu eta landuaz abiatu behar dugu instituzionalitze bide hortan. Konbenioa, eskola publikoruntz ikastolek eman duten pausorik haundienetako bat da.

Hala ere ikastolak ez dira oraindik doan izango, baina doan izate hori publikoruntz da-

raman bidearekin estu estu lotua dago. Eskola publiko bihurtzeko ekin diogun bideari jarraitu behar gaitzaizkio inguru politiko berrian, lehen hasitako euskalduntze lan handia gerora ere betetzeko.

Bide hau aldapatsua gerta daiteke; luze jo dezake eta ikastola eta honen inguruan dabilen jende guztiaren bultzadaren beharrean gaude.

Kilometroak egiten ari garenean, bidea ebakitzen jarraitu behar dugula pentsatu behar dugu.

Haur eta helduok, datorren Iganeko ikastolen egun berezi hortan, denok parte hartzen dugularik gure ikastolei bultzada bat eman eta euskararenganako zaletasuna zabaltzen saia gaituzen.

Ikastola guztiak eta bereziki Tolosako ikastolak eskertuko zaitue.

PAULO AGIRRE